

UDALBURUA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2016ko URTARRILAREN 21ean  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Esteban Hernando  
Lauren Uria  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren hogeita batean, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria egin die eta besterik gabe ohiko bilkurako aztergaien zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzera pasa dira:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko azaroaren 23an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta.**

Gaiari buruz ez dute ezer aipatu, eta akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko abenduaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Iraida andreak (AB) aipatu du Garoñako mozioari buruzko puntuan berak esandakoa ez dagoela ondo jasota; izan ere, esan zuen Batzordean lehen ere azaldu zuela bere taldeak nahiago zuela EH BILDUK aurkeztutako proposamena, baina mozioa adostu egin zenez, bere taldeak ez ziola aurka egingo; ez zuen esan, ordea, mozioaren alde zeudenik.

Idazkariak esan du aipatutako aldaketa egingo duela.

Besterik esan ez dutenez, akta onetsi egin dute, aipatutako aldaketarekin.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, “Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren fatxadako egurrezko frisoko lanengatik igorritako 3. ziurtagiria-likidazioa (PCO1 partida), 2.026,79 eurokoa, gehi dagokion BEZa (guztira 2.452,42 euro).**

Inork ez du ezer esan horri buruz, eta aho batez onetsi da.

Horri jarraiki,

**AINTZAT HARTU DA.-** Udaltzaren 2015eko uztailaren 23an hartutako erabakiaren bidez, J. M. O. S. jaunari esleitu zitzaiona PC-01 obra-unitatea gauzatzeko kontratu txikia. Kontratu hori ez da sartu "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" proiektuan eta honetan datza: hegal bat jartzea estalkian (60,40 m<sup>2</sup>-ko sandwich panelezko estaldura harrizko fatxadaren errematearen eta Iparraldea-Hegoaldea-Ekialdea-Mendebaldea fatxadetako egurrezko estalkien artean; hegaleko frisoa); zenbatekoa: 9.451,78 € (gehi BEZari dagozkion 1.984,87 €).

**IKUSI DA.-** J. M. O. S.ek aurkeztutako azkeneko 3. ziurtagiria-likidazioa eta faktura, guztira 2.026,79 eurokoa (gehi dagokion BEZa).

**AINTZAT HARTU DA.-** Obra honi dagozkion hiru ziurtagirien guztizkoa 10.272,83 €-koa dela (gehi dagokion BEZa). Horrek esan nahi du zenbatekoa 821,95 € igo dela esleitutako zenbatekoarekin alderatuta, obra gauzatzean beharrezkoak izan diren erremate berriak direla eta.

**AINTZAT HARTU DA.-** Obra-zuzendari D. P. O. jaunak 2015eko abenduaren 30ean emandako oniritzia.

Udaltzaren, bertaratutako kide guztiak ados daudela, honako hau **ERABAKI** du:

**LEHENENGOA.-** Onestea J. M. O. S.ek igorritako hirugarren ziurtagiria, 2.452,42 eurokoa (BEZa barne), eta aipatutako gastua baimentzea.

**BIGARRENA.-** Diruzaintzari agintzea 2.452,42 euro ordaintzeko J. M. O. S. jaunari.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" obraren 2015eko abenduko azkeneko 13. ziurtagiria-likidazioa, 174.191,22 eurokoa (BEZik gabe).**

Iraida andreak (AB) galdetu ea zergatik den kanpoko zurajea aluminiozkoa. Osoko bilkura batean hori egurrezkoa izango zela onetsi zen, beraz, adierazi du bere taldeak ziurtagiriaren aurka bozkaturiko duela eta berrikusteko eskatu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Batzordean aipatu ondoren, onetsitako proiektua, lizitazioa egiteko erabilitakoa, berrikusi egin dela, eta zurajea aluminiozkoa dela.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Alde: 8 (4 EAJ-PNVk eta 3 BILDUK)

Kontra: 2 (ABk)

Horri jarraiki,

**AINTZAT HARTU DA.-** Udaltzaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA SL enpresari esleitu zitzaiona "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" obra gauzatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

**IKUSI DA.-** Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresak aurkeztutako 13. ziurtagiria eta faktura, 210.771,38 eurokoa (BEZa barne).

**AINTZAT HARTU DA.-** Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

**AINTZAT HARTU DA.-** Obra-zuzendariaren 2015eko abenduaren 30eko txostena. Bertan 01.01.45 partida aurrekontutik kanpo utzi izana justifikatzen du, partzelaren amaierako hormako doikuntza-xehetasunari dagokiona; izan ere, ezinezkoa litzateke obra epearen barnean amaitzea, hormak duen deformazioagatik beharrezkoa baita eraispenaren luzera handitzea, hormaren egonkortasuna bermatzeko.

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI** du:

**Lehenengoa.-** Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresak igorritako azkeneko hamahirugarren ziurtagiria, 210.771,38 eurokoa (BEZa barne), aipatutako gastua onestea, eta 01.01.45 partida obra-proiektuaren aurrekontutik kanpo utz dadila onartzea.

**Bigarrena.-** Diruzaintzari agintzea 210.771,38 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresari”.

**5.- Izendatzea, bidezkoa bada, Aiarako udalerriko bake-epaile titularra eta ordezkoa, lau urterako. (2016-2020).**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du, Bake Epaiteko idazkari Andonik Batzordean azaldutakoa ikusi ondoren, gobernu-taldeak aurkezten duen proposamena dela bake-epaile izendatzea orain arte zeregin horiek gauzatzen zituen pertsona: M. J. M. G.; izan ere, orain arte ondo lan egin duela uste dute eta eskertu behar zaio, halaber, beste deialdi batzuetan, eskaerarik ez zegoenean, bera kargua betetzeko prest agertu izana bere borondatez. Horrez gain, A. A. G. proposatu da ordezkoko gisa.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratuek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

**IKUSI DA.-** Udal honek bake-epailearen kargua betetzeko hasitako administrazio-espeditentia.

**HONAKO HAU GERTATU DA.-** Amaitu da jendaurrean jartzeko epea (2015-12-14ko ALHAOn, 146 zk., iragarki-taulan eta Udalaren web orrialdean argitaratu da); bertan iragartzen zen bake-epaila izendatzeko prozesuaren izapideak egingo zirela, eskaerak aurkez zitezten. Honako hauek aurkeztu dute eskaera udal-bulegoetan:

- O. A. T.and.
- A. A. G. and.
- M. D. L. and.
- E. G. M.and.
- M. J. M. G. and.

**HONAKO HAU GERTATU DA.-** Izendatzeko prozesuan parte hartzea eskatu duten pertsona guztiek bete egiten dituzte bake-epaile karguan jarduteko Botere Judizialaren Lege

Organikoak ezartzen dituen legezko eskakizunak, eta ez dute zeregin judizialei ekiteko ezintasun- edota bateraezintasun-arrazoirik.

**AINTZAT HARTU DA.-** Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan eta bake-epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan (1995eko uztailaren 13ko BOE) ezarritakoaren arabera, Udalbatzari dagokio bake-epaile kargurako pertsona bat proposatzea hala eskatzen duten eta lege-baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Erabakia Udalbatzako kideen gehiengo osoz hartu beharko da.

Udalbatzak, bertaratutako kideen gehiengo osoz (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10), honako hau **ERABAKI** du:

**Lehenengoa.-** Doña M. J. M. G. hautatzea, eskumeneko organo judizialak udalerrri honetako bake-epaile titular izenda dezala proposatzeko, eta ordezkoko gisa A. A. G. hautatzea, lau urterako (2016-2020).

**Bigarrena.-** Erabaki honen hitzez-hitzezko kopia igortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari, ordezkoko bake-epaile izateko proposatutako pertsona izenda dezan, egokitzen jotzen badu.

- *Aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkate jaunak puntu bat aztertzea proposatu du, premiazkoa delako, aztergaien zerrendatik kanpo; hain zuzen ere honako hau: Luiaondoko Otazu kalean gas-biltegi bat instalatzeko esleipena edo jabariko baimena indargabetzeko hasitako administrazio-espeditentea ebaztea.*

*Gentza jaunak aipatu du beraiek idatzi bat aurkeztu dutela alegazioen epean edo entzunaldirako epean, eta bertan adierazi dutela gas-biltegia kendu egingo dutela. Beraz, lehenbailehen erabaki eta jakinarazi behar da.*

*Gai honen eztabaidarekin hasi aurretik, aztergaien zerrendatik kanpo sartzeko premia bozkatu da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute, beraz, puntu hau sartu da:*

**6.-** Udalbatzaren 2015eko azaroaren 19ko erabaki bidez hasitako administrazio-espeditentea ebaztea, Luiaondoko Otazu auzoko jabari eta erabilera publikoko lursail baten okupazio pribatiboa egiteko eta bertan gas-biltegi bat instalatzeko esleipena edo jabariko baimena indarrik gabe uzteko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

**IKUSI DA.-** Udalbatzaren 2015eko azaroaren 19ko erabaki bidez hasitako administrazio-espeditentea, Luiaondoko Otazu auzoko jabari eta erabilera publikoko lursail baten okupazio pribatiboa egiteko eta bertan gas-biltegi bat instalatzeko esleipena edo jabariko baimena indarrik gabe uztekoa; interes publikoko arrazoiak direla eta, orain biltegi horri erabilerarik

ematen ez zaiolako, aprobetxamendua agortu baita, eta adostutako kanona ordaintzen ez delako, eta ondorioz, baimentzeko oinarri izan ziren baldintzak betetzen ez direlako.

**IKUSI DA.-** Repsol Butano SAri emandako entzunaldi-epean ez dio aurka egin eta, abenduaren 23an, Danagas SLk idatzi bat aurkeztu zuen, esanez biltegia, dagoeneko gasik gabea, kenduko duela. Bertan eskatzen du, halaber, biltegia kentzeko eragozpenik balego, jakinaraz diezaiotela.

**IKUSI DA.-** Udal-zerbitzu teknikoek 2016ko urtarrilaren 20an eginiko txostena.

**HONAKO HAU GERTATU DA.-** Egokitzen jotzen da espedientea ebaztea eta esleipena edo jabariko baimena indarrrik gabe uztea, baita Danagas SLri baimena ematea ere, gas-biltegia ken dezan, udal-zerbitzu teknikoek ezarritako baldintzei jarraituz.

**AINTZAT HARTU DA.-** Azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 100. artikuluan xedatutakoa.

Eta Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea onesten duen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

Udalbatza honek, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

**Lehenengoa.-** Espedientea ebaztea eta indarrrik gabe uztea Luiandoko Otazu auzoan jabari eta erabilera publikoko lursail baten okupazio pribatiboa egiteko eta bertan gas-biltegi bat instalatzeko esleipena edo jabariko baimena, interes publikoko arrazoiengatik.

Repsol Butano SAri eskatzea gas-biltegia ken dezala eta okupatutako lursaila bere jatorrizko egoerara lehenera dezala, berriz belarra jarrita eta udal-zerbitzu teknikoek 2016ko urtarrilaren 20an eginiko txostenean ezarritako baldintzei jarraituz.

Interesdunari jakinaraztea, biltegia aipatutako epean eta ezarritako baldintzetan kendu ezean, Udalak gehienez 10 hertsapen-isun jarri ahal izango dituela, bakoitza 600 eurokoa, hileko epeetan. Gauzatze subsidiarioa erabiliz gero, gastuak biltegia kendu behar duenaren ondaretik likidatu beharko dira behin-behinean. Beharrezkoa izanez gero, bere ondarearen premiamendu-bidera ere joko da.

**Bigarrena.-** Gas-biltegia kentzeko baimena ematea Danagas SLri, 2015eko abenduan eginiko idatziari erantzunez. Jakinaraziko zaio, halaber, biltegia kentzeko prozesuak errespetatu egin beharko dituela udal-zerbitzu teknikoek 2016ko urtarrilaren 20an eginiko txostenean ezarritako baldintzak; zehazki, honako hauek:

- *Hasteko, enpresak udal honi jakinaraziko dio lanak noiz gauzatuko dituen, lursailen administratzaileari horren berri emateko.*
- *Lurrak mugitzeko makineria eta ibilgailuak erabili behar direla aurreikusiz gero, barneko bide-mozketak egingo dira eta seinaleak jarriko dira lehengo bidean, bertan egiten ari diren jarduketan berri emateko, 8.3 IC Obrak seinaleztatze arauan ezarritakoaren arabera.*
- *Lurren mugimenduei dagokienez, biltegia kendu ondorengo erabaki zehatzak arinak izango dira, behar izanez gero ingurunean esku hartuz. Jarduketak ez dira, inola ere, partzelaren egungo altimetriatik gora igotako guneeetan egingo.*
- *Lurrak mugitu beharra duen eremuan belarra jarri beharko da berriz.*
- *Indarrean dagoen legerian jasotako bitartekoak erabiliko dira; zehazki, 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak. Bertan jasotzen dira eraikuntza-obren gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak.*
- *Lanetako hondakinei dagokienez, 105/2008 ERREGE DEKRETUAK eta eraikuntza- eta eraispin-lanen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 26ko 112/2012 DEKRETUAK dioen moduan tratatuko dira.*
- *Obrak amaitu ondoren, horren berri eman beharko da, behar bezala amaitu direla egiaztatu ahal izateko.*

**Hirugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea Repsol Butano SA eta Danagas SLri. Erabaki honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute, jakinarazpenetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

#### **7.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea:**

- **Erref.- 553/15.- M.J.C.M.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko lizentzia eskatzea.
- **Erref.- 554/15.- I.O.A.-** Agiri gehiago eskatzea, obrarako udal-lizentziaren espedienteari dagokionez.
- **Erref.- 555/15.- M.B.A. eta V.G.-** Agiri gehiago eskatzea, eraikin baten auri-espedienteari dagokionez.
- **Erref.- 556/15.- Erretesko Administrazio Batzarra.-** 2014ko argiteria publikoaren gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 557/15.- A.V.S.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, baserria berritzeko eta ondoko txabolari estalki berria jartzeko, Menoion.
- **Erref.- 558/15.-** Alkatearen 4-2015 kreditu gehigarriaren espedientea.
- **Erref.- 559/15.-** Alkatearen 5-2015 kreditu gehigarriaren espedientea.
- **Erref.- 560/15.- D. P. O.-** "Aiarako 3. industrialdeko 1333 partzelako erabilera publikoko jarduketak" obra gauzatzeko proiektuaren idazketa esleitzea.
- **Erref.- 561/15.- S.V.M. anai-arrebak.-** Agiri gehiago eskatzea, finkak batzeko lizentziaren espedienteari dagokionez.
- **Erref.- 562/15.- Luiandoko Administrazio Batzarra.-** Luiandoko hilerria handitzeko obren eraikuntza- eta eraiste-hondakinak kudeatzeagatiko fidantza itzultzea.

- **Erref.- 563/15.- L. eta B.T.M.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Salmantoneko eraikin bateko estalkia birgaitzeko.
- **Erref.- 564/15.- Lantenoko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea, 2014ko argiteria publikoaren eta berokuntzaren gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 565/15.- Administrazio Batzarrak.-** Diru-laguntza ematea, erantzukizun zibileko aseguru ordaintzeko.
- **Erref.- 566/15.- Añesko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea, Añesko edateko uraren sarea hobetzeko obrarako proiektua idazteagatiko ordainsarien gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 567/15.- EUSKAL FONDOA.-** Diru-laguntza ematea, Nikaraguako proiektua finantzatzeko.
- **Erref.- 568/15.- A.O.D.Z.A.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko zenbait etxebizitzetan jarduketak gauzatzeko.
- **Erref.- 569/15.- A.V.D.-** Zehapen-espeditentea ebaztea.
- **Erref.- 570/15.- J.M.B.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako partzela baten itxitura luzatzeko.
- **Erref.- 571/15.- Aiarako Administrazio Batzarrak.-** Soberazko diru-laguntza ematea, 2015eko zaindariaren jaietako gastuak ordaintzeko.
- **Erref.- 572/15.-** Diru-laguntza eskatzea, ikastetxeetan obrak egiteko (Udalaguntza-2015).
- **Erref.- 573/15.-** Onestea F/2015/12 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 574/15.- Contrucciones Izoria 2000 SA.** 2015eko EJZren likidazioen inguruan egindako erreklamazioa ebaztea.
- **Erref.- 575/15.- Maroñoko San Pedro apostoluaren parrokia.** Landako OHZ ordaintzetik salbuestea, 2016-01-01etik aurrera.
- **Erref.- 576/15.- M.A.A.G.** Hobaria ematea Ibilgailuen gaineko Udal Zergan, familia ugaria izatea egiaztatzeagatik.
- **Erref.- 577/15.-** Aldatzea Aiarako eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko pleguen O eranskina.
- **Erref.- 578/15.-** Aldatzea Luiandoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko proiektua hobetzeko zerbitzuaren kontratua.
- **Erref.- 579/15.-** Alkatearen 6/2015 kreditu gehigarriaren espeditentea.
- **Erref.- 580/15.-** Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinerako errotulazio-elementuak hornitzeko eta jartzeko kontratua esleitzea.
- **Erref.- 581/15.-** Etxaurren Ikastolako patioa estaltzeko proiektua idazteko zerbitzuen kontratua esleitzea.
- **Erref.- 582/15.-** Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinean altzariak hornitzeko eta jartzeko kontratua esleitzea.
- **Erref.- 583/15.- Lantenoko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea, ur edangarria biltzeko sarea ordezteko obra zuzentzeagatiko ordainsarien gasturako.
- **Erref.- 584/15.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea, “Menagarai-Beotegiko baserri sakabanatuei argiteria publikoa jartzeko proiektua” idazteagatiko ordainsarien gastuetarako.
- **Erref.- 585/15.- Alday Ongintzazko Fundazioa.-** Diru-laguntza ematea, Arespalditzako Eguneko Zentroan obra egiteko.
- **Erref.- 586/15.- SEADen Lagunen Elkartea.-** Laguntza ekonomikoa ematea, errefuxiatu sahararren kanpamentuetako uholdeen eraginak arintzeko.

– **Erref.- 587/15.- Udalerriko administrazio-batzarrak eta Salbada mendilerroko ermandade ohia.-** Diru-laguntza ordaintzea, Aiarako ehiza-barrutiko lursailak baliatzeagatik (2015. urtea).

– **Erref.- 588/15.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea, Menagarai-Beotegiko baserri sakabanatuetan hondakin-uren saneamendu partziala egiteko eta argiteria publikoa jartzeko proiektuaren obra zuzentzeagatik ordainsarien gastuetarako.

– **Erref.- 589/15.- Alkatearen 1-2015 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.**

– **Erref.- 590/15.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Diru-laguntza ematea, herriko hobi septikoa husteagatik.

– **Erref.- 1/16.-** 2015eko aurrekontua luzatzea, 2016rako.

– **Erref.- 2/16.- A.R.D.L.C.-** Soxoko partzela batean bazka-biltegi bat eraikitzeko obrekin hasteko luzapena baimentzea.

– **Erref.- 3/16.- L.A.G.T.-** Agiri gehiago eskatzea, okupaziorako udal-lizentziaren espedienteari dagokionez.

– **Erref. 4/16.- AXPO IBERIA SL.-** 2015eko 4. hiruhilekoan lursaila okupatzeagatik tasa likidatzea.

– **Erref.- 5/16.- NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU.-** Hegalaren, lurzorua eta/edo lur-azpiaren aprobetxamendu pribatiboagatik tasa likidatzea, 4. hiruhilekoko.

– **Erref.- 6/16.- M.J.C.M.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan.

– **Erref.- 7/16.- S.S.G.-** “Zuhatzako etxebizitza baten eranskina birgaitzeko” obran sortutako hondakinak kudeatzegatik jarritako fidantza itzultzea.

– **Erref.- 8/16.- S.S.G.-** Zuhatzako familia bakarreko etxebizitzaren eranskina okupatzeko udal-lizentzia ematea.

– **Erref.- 9/16.- J.M.S.Q.-** Agiri gehiago eskatzea, lehen erabilerako udal-lizentziaren espedienteari dagokionez.

– **Erref. 10/16.- J.A.L.L.-** 2015eko otsailaren 5eko 35/15 Alkatetzaren Dekretu bidez emandako obra-lizentzia luzatzea.

– **Erref.- 11/16.- EDP Comercializadora SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatik tasa (2015eko 4. lauhilekoa); kontzeptua: **elektrizitatea**.

– **Erref.- 12/16.- EDP Comercializadora SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatik tasa (2015eko 4. lauhilekoa); kontzeptua: **gasa**.

- Esteban jaunak (BILDU) galdetu du, 575/15 zenbakiko dekretuari dagokionez, ea zergatik baimendu zaion OHZ ordaintzeko salbuespena.

Idazkariak erantzun dio hala eskatu dutela eta, araudiaren arabera, eliza katolikoaren ondasunak OHZ ordaintzetik salbuetsita daudela; beraz, legearen arabera salbuespena eman egin behar zaie, hala eskatzen badute.

## **8.- Eskaerak eta galderak.**

- Lauren jaunak (BILDU) galdetu du, Luiandoko eraikineko obrari dagokionez eta, zehazki, mediku-kontsultategiari dagokionez, ea aurrerapausorik egon den



Osakidetzarekiko elkarrizketetan, eta ea diru-laguntza handiagoa emango duten 2016an.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du esan zietela Udalaren ustez Osakidetzak diru-laguntza handiagoa eman behar zuela eta, kontuan hartzeko obra gauzatzeko egin den ahalegina. Asteazkenean bilkura bat egin zuten Galdakaoko ESIko Ekonomia eta Finantza zuzendariarekin, Antón dagoeneko ez baitago bertan, eta esan zien jakinaren gainean geratu zela eta aztertuko zuela. Berriz ere esango diete.

Gentza jaunak jarraitu du, eta esan du seinaleak aste pare batean martxan egongo direla aurreikusten dutela, eta altzariak otsailaren amaierarako. Baliteke martxoan lekualdaketa egin ahal izatea, nahiz eta Osakidetzako kontsultategiaren lagapenen kontua konpontzeke geratuko den, banaketa horizontal bat egin behar delako. Administrazio Batzarrari ere helaraziko zaio, jakinaren gainean egon daitezen eta orain mediku-kontsultategia barne hartzen duten lokalak erabili ahal izan ditzaten.

Lauren jaunak (BILDU) aipatu du lehen Osakidetzako E. Z.-rekin hitz egin zutela; izan ere, Osakidetzak ez du egungo kontsultategiaren gasturik hartu bere gain, eta urtean 8.000 euro inguru besterik ez ditu eman. Zenbateko horrekin ezin dira gastu guztiak ordaindu. Beraz, orain kontuak begiratu behar dira eta zer eska dakiekeen ikusi, hainbat urtez ordaindu ez dituzten gastu horiek guztiak konpentsatzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du gai hau lantzeko asmoz Osakidetzako Antónekkin bildu diren bakoitzean erantzun bera jaso dutela: kontuan izango dutela.

- Esteban jaunak (BILDU) esan du aurreko legealdiaren amaieran, Otazuko urbanizazioan biltegia dagoen partzelaren gaia landu zutenean, bertako bizilagunek aipatu zutela gabezia batzuk zeudela. Ivánekkin, udal-aparejadorearekin, ere hitz egin zuten, partzelaren amaieran pasabide bat jartzeko aukerari buruz. Galdetu du ea berriz aztertu duten gai hori.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du gai hori berriz martxan jarri dutela, araztegiaren gaiarekin batera, eta eskakizun bat egin diotela enpresa eraikitzaileari; izan ere, analisisen arabera, arazketa-lana ez da ondo egiten. Enpresa eraikitzailekoek esan zuten hilaren amaiera baino lehen zerbait esango zigitela. Gabezia guztiak zuzentzen ez badituzte, abala kenduko zaie eta, ondoren, araztegia hobetu eta urbanizazioan dauden gabezia guztiak konponduko dira, abal hori erabiliz.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du, egoera aprobetxatuz, Danagas enpresakoekin ere hitz egin dutela, eta jakinarazi dietela biltegi gehiago ere badaudela Luiandoko Padura eta Restergo kaleetan.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko urtarilaren hogeita batean.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.